



## ADI ORDEZKO!! ALDAKETAK BAREMAZIO GARAIAN?

Administrazioak otsailaren 21eko Planifikazio Batzordean, irakasle batek epaitegian jarritako salaketa baten sententziaren berri eman zigun. Gaur arte, sare pribatua burututako lan urte bakoitzeko 0'5 puntu jasotzen dira sare publikoko ordezkoren zerrendatan. Sententzia honek, aipatutako puntuazioa gutxiegi dela adierazten du eta araudiaren artikulua hori indargabetzen du. Gainera, proposamen gisa, lan urteko 3 puntu emateko aipamena egiten du, erkidego ezberdinetan egiten den bezala. Hala ere, Administrazioaren esku uzten du araudiaren eraldaketa.

Guzti honen aurrean Administrazioak hartutako jarrera OSTRUKAK bezala jokatzeko da; sententzia honen atzean burua ezkutatu eta epaileak arautegia eraldatzeko emandako proposamena ARAU bihurtu nahirik dabil, gainera atzeraeraginezko izaeraz. Honek, Hezkuntza Departamentuak ezarritako ordezkoren kudeaketa sisteman lanean egon garen ordezko guztioi kalte izugarria suposatzen digu, hezkuntza pribatuko sisteman lan egiten duten irakasle askok aurre hartuko bailigukete ordezkoren zerrendatan.

Honek eragin bikoitza ekarriko du hezkuntza publikoko ordezkoentzat, ikasturte honen baremazio garaian martxan jarritz gero:

- Alde batetik, lan aukerarako izugarrizko atzerapena.
- Bestetik, neurritz kanpoko kalte soziala norbanako bizi egonkortasunerako, 2007/2008 ikasturterako norbere lan perspektibak guztiz suntsituak geratzen baitzaizkigu.

LABek ez du onartzen administrazioak egin nahi duen sententziaren aplikazioa. Sare pribatuko zerbitzuak arautzen dituen artikulua aldatu beharra dago sententziaren arabera, baina ez egin nahi den terminoetan eta atzeraeraginezko izaeraz. Otsailaren 28ko Planifikazio Batzordean gaia zehaztuko da eta informazioa helaraziko dizuegu.

Sare publikoko ordezkoenganako jarrera diskriminatzaile honen aurrean, ordezkok gure haserrea eta tinkotasuna erakutsi beharra daukagu.

ADI ONDORENGO EGUNETAKO INFORMAZIOE!!  
ZABALDU ORDEZKOEN ARTEAN!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	Coursic Karrika 13 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org